



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

NAZIOARTEKO ZUZENBIDE IKASTAROAK: HARRERA

Euskal Legebiltzarraren Egoitza
2008ko UZTAILAREN 14a

Izaskun Bilbao Barandica
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA



Egun on.

Uztail oro Gasteizen egiten den Nazioarteko Zuzenbideari buruzko ikastaroan parte hartzen ari direnentzako harrera honek badu, aurten, berezitasunik. laz zendu zen Julio González Campos zenaren oroimenarekin eta ibilbidearekin dugun zorra kitatu nahi genuke. Nazioarteko Zuzenbidearen alorrean aditu nabarmena zenez, zuentzat guztientzat ez ezik, ikastaro hauen historiarentzat ere erreferentzia zen, eta ikastarook metatu duten eskarmentua eta izen ona nahikoak dira bertan parte hartzea luxuzko esperientziatzat har dezagun.

Konpromiso horri erantzuten saiatuko naiz, sentimendutik, seriotasunetik baino gehiago. Izan ere, ekitaldi honen bidez aitortza egin nahi diogun pertsonaren ibilbideak, ahaleginez eta gaitasun pertsonalez betetako historiaz gain, gizatasunez betetako balantzea osatzen du. Haren semeak eman dezake horren testigantza, gurekin baitugu gaur, eta gero oroigarri bat emango baitiogu, aitortza horren erakusgarri.



Bereziki atsegina zait omenaldi hau hemen egitea, hiru arrazoirengatik. Lehenik eta behin, nazioarteko zuzenbidearen fundatzailea izan zen Francisco de Vitoriaren jaioterrian gaude. Horrez gain, ikastaro hauekin hasiera-hasieratik lankidetzan estua izan duen erakunde batean gaude. Eta, azkenik, Don Julioren kreaturetako bat den Internazionalisten Oviedoko Eskolak badu harremanik EELBren sorrerakin. EELB, Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarra, hain zuzen ere, Asturiasko hiriburuan jaio zen, eta aurten niri dagokit bertako Lehendakari izateko ohorea. Gero eta irekiagoa eta elkarlotuagoa den mundu honetan eskualdeek izan behar duten zereginean sinesmen osoa dugunontzat, aipatu testuingurua oso esanguratsua da omenaldi labur hau egiteko.

Ez zaituztet nekarazi nahi, Julio González Camposen sinadura berau agertzen duten idazkien kalitatearen bermea den "K" horren antzeko zerbaitek bihurtu zuten curriculuma eta arduren zerrenda luzea zehaztuta. Utzidazue, ordea, Juliok zuzenbidearen ideia berezi batean zuen fedea eragiten didan miresmen sakona adierazten, ez baikenioke ideia horri uko egin behar. Alvarez irakasle jaunak haren



produkzio zientifikoaren errepasoa egiten duenean, bai eta Auzitegi Konstituzionalean zegoelarik egin zituen ebazpenena ere, gogora ekarriko du dagoeneko zuzenbide garaikidearen historiaren parte bilakatu diren idazkien egile izan zela.

Don Julioren ibilbidea, manipulazioari aurka egiteko zuen indarra, zintzotasun intelektuala, askatasunaz eta berau bermatzen duten legeez egiten zuen defentsa irmoa, unean uneko egoeren, alderdi politikoaren interesen eta botere erakustaldien gaintik, eredu eta arau bihurtuko ahal dira. Egin diezaiokegun omenaldirik handiena lan egiten jarraitzea da, berea bezalako jokamoldeek Demokrazia irekiago bat ekar dezaten, eta ez dezaten irudi izan korrontearen aurkako igeriketa ariketak. Eta aitortzarik handiena, gehien merezi duena, haren familiarentzat esanguratsuena izatea nahi nukeena, aita zutenez giza alderdirik garrantzitsuena ezagutu ziotenentzat, honako hau: ozenki esatea eta nabarmentzea Julioren biografian duintasunak gainezka egiten duela. Eta horixe izaten da pertsona onak edertzen dituen lehen ezaugarria.

Mila esker



RECEPCION CURSOS DE DERECHO INTERNACIONAL

Sede del Parlamento Vasco,
14 DE JULIO 2008

Izaskun Bilbao Barandica
PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO



Buenos días.

La recepción que ofrecemos hoy a las y los componentes del curso de derecho internacional que se celebra en Vitoria-Gasteiz cada mes de julio tiene este año una particularidad. Se trata de aldar una deuda con la memoria y trayectoria de Julio González Campos, fallecido el año pasado. Se trata de una autoridad en esta materia y por lo tanto de una referencia para todos ustedes y para la historia de unos cursos que acumulan ya experiencia y prestigio como para que sea un lujo vivirlos.

Voy a tratar de responder a este compromiso tratando de ofrecerles más sentimiento que solemnidad. No en vano reconocemos en este acto a una persona cuya trayectoria, además de una historia de esfuerzo y competencia personal, compone un balance entrañablemente humano. Puede dar testimonio de ello su hijo, que nos acompaña y al que entregaremos luego un recuerdo de este reconocimiento.

Me es especialmente grato además acoger aquí este homenaje por tres razones. En primer lugar estamos en la localidad natal de



Francisco de Vitoria, fundador del derecho internacional. Además nos encontramos en una institución que, desde su inicio ha mantenido una estrecha colaboración con estos cursos. Finalmente porque la Escuela de Oviedo de Internacionalistas, una criatura de don Julio, no es ajena al nacimiento de la CALRE, una conferencia de parlamentos regionales europeos que nació, precisamente, en la capital asturiana y que este año tengo el honor de presidir. Para quienes creemos en el papel que las regiones deben jugar en el mundo cada vez más abierto e interrelacionado en que vivimos ese es ya un contexto más que destacado para este breve homenaje.

No voy a cansarles detallando ahora el currículo y las responsabilidades que convirtieron la firma de Julio González Campos en una especie de “Q” que certifica la calidad de los escritos en que podemos encontrarla. Permítanme, en cambio, que exprese mi más profunda admiración por su fe en una concepción del Derecho a la que no deberíamos renunciar. Cuando el profesor Alvarez repase su producción científica, pero también en sus resoluciones como magistrado del Constitucional, recordará que es



autor de piezas que figuran ya en la historia del derecho contemporáneo.

Ojalá que la trayectoria de Don Julio, su resistencia a la manipulación, su honradez intelectual, su defensa de la libertad y las leyes que la garantizan por encima de coyunturas, intereses partidarios o exhibiciones de poder, sean norma. El mejor homenaje que podemos rendirle es trabajar para que comportamientos como el suyo estimulen una Democracia más abierta y no parezcan nunca ejercicios de natación contra corriente. Y el mejor reconocimiento, el que más merece, el que espero signifique más para sus familia, para quienes lo conocieron en la faceta más importante de padre, de ser humano es constatar, decir en voz alta, que su biografía desborda dignidad. Y esa es la primera cualidad que adornan a las buenas personas.

Muchas gracias

